



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailearen 12ko 6/2005 Foru Arauak:

1/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen

De conformidad con lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

Norma Foral 1/2024, de 10 de mayo, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2024

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA
LA DIPUTADA FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



Araugintzako ebaluazio txostena

**1/2024 Foru Araua, maiatzaren
10ekoa, 2024. urterako zenbait
zerga aldaketa onesten
dituena**

Sarrera

Zergen aplikazioaz arduratzen diren organoek zerga araudia etengabe aplikatzeak, zenbait kasutan agerian uzten du beharrezkoa dela araudian neurriak sartzea edo dauden neurriak aldatzea lurralde historikoko erakundeen eskumeneko tributuen erregulazioa hobetzeko eta haiek unean-uneko egoera ekonomiko eta sozialera egokitzeko. Era berean, tributuz kanpoko beste arau esparru batzuetan zergen araudian zuzenean edo zeharka eragiten duten alderdiak aldatu izanak eskatzen du araudi hori behar bezala egokitzea aldaketa horietara, haren koherentzia eta egitura gordetzearren.

Informe de evaluación normativa

**Norma Foral 1/2024, de 10
de mayo, por la que se
aprueban determinadas
modificaciones tributarias
para el año 2024**

Introducción

La aplicación continuada de la normativa tributaria por los órganos encargados de la misma deja al descubierto, en algunos casos, la necesidad de realizar modificaciones en las regulaciones de los distintos tributos en los que las instituciones del territorio histórico tienen competencia normativa. Así mismo, las modificaciones operadas en otros ámbitos normativos distintos a los tributarios, de aspectos que directa o transversalmente inciden en la regulación tributaria, exigen realizar las debidas adaptaciones de esta normativa a aquellos cambios, a fin de guardar su coherencia y estructura.



Hori horrela izanda, aztertutako foru arau honek aldaketa ugari sartu zituen Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen esparruan.

Proposatutako aldaketa gehienak izaera teknikokoak izan ziren, irizpideak argitzekoak, akatsak zuzentzekoak eta zerga-arauen igorpenak eguneratzekoak. Horien guztien helburua zen zerga-antolamenduaren ulermena eta argitasuna hobetzea, baita antolamendu hori behar bezala aplikatzea ere, segurtasun juridikoaren printzipioa betetze aldera.

Onartutako gainerako aldaketetatik, honako hauek dira nabarmentzekoak.

Izatezko bikoteak maila fiskalean aintzat hartzea

Izatezko bikotearen izaeraren arauketa homogeneizatzeaz gain – izatezko bikoteak arautzen dituen Eusko Legebiltzarraren

Siendo eso así, esta norma foral analizada introdujo un amplio abanico de modificaciones en el marco tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La mayoría de las modificaciones aprobadas fueron de carácter técnico, de aclaración de criterios, de corrección de errores y de actualización de remisiones normativas tributarias. Todas ellas perseguían mejorar el entendimiento y la claridad del ordenamiento tributario, a la vez que una correcta aplicación del mismo en aras al principio de seguridad jurídica.

Del resto de modificaciones aprobadas, caben destacar las que se exponen a continuación.

Consideración de parejas de hecho a nivel fiscal

Además de homogeneizar la regulación de dicha consideración de pareja de hecho en las distintas figuras tributarias afectadas, en



maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturakoak halakotzat hartzeko irizpidearekin homogeneizatzen da-, espresuki gehitzen dira beste autonomia erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo hirugarren herrialdeetako erregistro publikoetan modu analogoan eraturakoak eta inskribaturakoak, Europako Batzordeak zentzu horretan egindako errekerimenduari jarraituz.

Desgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura

Desgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozeduraren (urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua) arau substantiboa aldatu izanak, berekin ekarri zuen erreforma sakona, eta horrek eskatzen zuen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia egokitzea lan etekinen hobariari eta desgaitasunaren eta mendekotasunaren kenkariari dagokienez, baita trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren araudia ere, desgaitasunagatik salbuesteari dagokionez. Egindako aldaketekin, ordura arte indarrean

el sentido de considerar como pareja de hecho a las constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho, se incorporan expresamente las parejas de hecho constituidas e inscritas de forma análoga en registros públicos tanto de otras comunidades autónomas como de otros Estados miembros de la Unión Europea, del Espacio Económico Europeo o de países terceros, dando así respuesta al requerimiento efectuado por la Comisión Europea a tales efectos.

Procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad

La modificación de la normativa sustantiva (Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre) del procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad supuso una reforma profunda que requería adecuar la normativa del impuesto sobre la renta de las personas físicas, en lo relativo a la bonificación del rendimiento del trabajo y a la deducción por discapacidad y dependencia y la normativa del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica, en lo relativo a la exención por



izan ziren zerga tratamenduei eutsi nahi zen, ahal zen neurrian. Gainera, beharrezko egiten zen araubide iragankorrak ezartzea zerga onura horiek aurreko baremoen arabera egindako balorazioen bidez aplikatzea ahalbidetzeko, betiere desgaitasunaren beste balorazio bat egiten ez zen bitartean.

PFEZ - Europar Batasuneko nekazaritza politikako diru-laguntzen salbuespena

Europar Batasuneko nekazaritza politikatik datozen laguntzen salbuespena onartzen da, klimaren eta ingurumenaren aldeko erregimenei (ekoerregimenei) emandakoak direnean.

PFEZ - Sorrera berriko entitate berritzaileen bazkide sortzaileentzako araubide berezia

Baldintza batzuk betetzen badira, sorrera berriko entitate berritzaileen bazkide sortzaileek, entitate horretatik jasotako lan etekin gordinen %30eko salbuespena aplikatu

discapacidad. Con las modificaciones aprobadas se pretendía mantener, en lo posible, los tratamientos tributarios que hasta entonces se encontraban vigentes. Exigía, además, incluir regímenes transitorios para posibilitar la aplicación de dichos beneficios tributarios por medio de las valoraciones efectuadas con arreglo a los antiguos baremos, siempre que no se produjera una nueva valoración de la discapacidad.

IRPF - Exención de ayudas de la política agraria de la Unión Europea

Se aprueba la exención de las ayudas de la política agraria comunitaria otorgadas a los regímenes en favor del clima y del medio ambiente (eco-regímenes).

IRPF - Régimen especial para personas socias fundadoras de entidades innovadoras de nueva creación

Si se cumplen ciertos requisitos, las y los contribuyentes que constituyan entidades innovadoras de nueva creación se podrán aplicar una exención del 30% de los



ahal izango dute.

Ondarearen gaineko zerga

Salbuetsita ezartzen dira entitateen kapitalean edo ondarean dauden akzio edo partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko gozamen eskubidea, haien titularrari eskubidea ematen badiote sorrera berriko entitate berritzaileen bazkide fundatzaileentzat ezarritako araubide berezia aplikatzeko.

Ahalbidetu egiten da Gipuzkoan azpiko aktibo higiezinak dituzten entitate ez-egoiliarretako partaidetza akzionarialak zergapetzea, egoiliarrarekiko betebeharrak errealean justifikaziorik ez duen diskriminazio bat zuzentzeko; izan ere, ez-egoiliarrek, pertsona juridiko ez-egoiliar bat tartekatze hutsagatik, ihes egiten dio aipatutako zergaren kargari.

Aitorpenak epez kanpo eta aldeztuak gabe

Lehen tarteko erretegia %5etik %2ra murrizten da, eta bere iraupena 6 hilabetekoa

rendimientos íntegros de trabajo abonados por dicha entidad.

Impuesto sobre el patrimonio

Se declaran exentas la plena propiedad, la nuda propiedad y el derecho de usufructo vitalicio sobre las acciones y participaciones en el capital o patrimonio de entidades que den derecho a su titular a aplicar el régimen especial para personas socias fundadoras de entidades innovadoras de nueva creación.

Se habilita la potestad de gravar las participaciones accionariales en entidades no residentes con activos inmobiliarios subyacentes radicados en Gipuzkoa, corrigiendo así una discriminación injustificada en la obligación real respecto de la persona residente, por cuanto la no residente, por el hecho de interponer una persona jurídica no residente, elude el gravamen del citado impuesto.

Declaraciones extemporáneas sin requerimiento previo

Se reduce el tipo de recargo del primer tramo, que pasa del 5% al 2%, y su duración,



izatetik 3 hilabetekoa izatera pasatzen da; horrez gain, kalkuluan berandutze interesak sartzen dira. Bigarren tarte laugarren hilabetetik hamabigarrenera doa.

Banakako pentsioen produktu paneuroparrak

Banakako pentsioen produktu paneuropearrei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan arautuak, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateentzat eta pentsio planentzat PFEZean eta ondarearen gaineko zergan aurreikusita dagoen tratamendu bera ematen zaie

Norbere Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari egindako kotizazioaren erregularizazio sistema

Arau berezi batzuk onartu dira PFEZn eta sozietateen gaineko zergan, aldi baterako egozpenaren arloan, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziarako kotizazioak erregularizatzeko. Lehenik eta behin, diru sarrera gehigarria edo dagokion kotizazio

que pasa de 6 a 3 meses; además, los intereses de demora pasan a incluirse en el cálculo. El segundo tramo pasa a ser desde el cuarto mes hasta el duodécimo,

Productos paneuropeos de pensiones individuales

Se da a los productos paneuropeos de pensiones individuales regulados en el Reglamento (UE) 2019/1238 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de junio de 2019, el mismo tratamiento previsto en el IRPF e impuesto sobre patrimonio para las entidades de previsión social voluntaria y los planes de pensiones.

Sistema de regularización de la cotización al Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos

Se aprueban unas reglas especiales en materia de imputación temporal en el IRPF y en el impuesto sobre sociedades, para regularizar las cotizaciones al Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos. En primer término, la



itzulketa lortzen den zergaldian egiten da egozpena. Hala ere, gehikuntza edo murrizketa horiek dagozkien zergaldiei egozteko aukera ematen da, autoliquidazio zuzentzaile edo osagarri baten bidez, zehapenik edo errekar gurik ezarri gabe eta berandutze interesik sortu gabe.

Informazioa emateko betebeharr berria pertsona juridikoei edo entitateei

Ezartzen da behartuta daudela Zerga Administrazioari komunikatzera zeintzuk diren haien benetako titularrak. Gainera, ezartzen da kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea eragozteari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikulua ren 2. Apartatuaren arabera definitutakoak hartuko direla halakotzat.

PFEZ – Lan etekinak

Lan etekintzat hartuko dira bai ikastaro, hitzaldi, solasaldi, mintegi eta antzekoak emateagatik lortzen diren etekinak eta bai literatura, arte edo zientzia lanak egiteagatik eskuratzen

imputación se efectúa en el periodo impositivo en el que se realice el ingreso adicional u obtenga la correspondiente devolución de la cotización. No obstante, se habilita la posibilidad de optar por imputar dichos incrementos o disminuciones a aquellos períodos impositivos a los que correspondan, mediante una autoliquidación rectificativa o complementaria, sin imposición de sanciones ni de recargos, y sin devengo de intereses de demora.

Nueva obligación de información para las personas jurídicas o entidades

Se establece que deberán comunicar a la Administración tributaria quiénes son sus titulares reales, teniendo tal consideración las definidas y los definidos conforme al apartado 2 del artículo 4 de la Ley 10/2010, de 28 de abril, de prevención del blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo.

IRPF – Rendimientos de trabajo

Se incluyen con la consideración de rendimiento del trabajo los rendimientos derivados de impartir cursos, conferencias, coloquios, seminarios y similares, así como



direnak, betiere horiek ustiatzeko eskubidea lagatzen bada eta jarduera ekonomikoen etekintzat hartzen ez badira.

PFEZ – Pertsona desplazatuaren araubidea berezia

Ahalbidetu egiten da administratzaile edo kontseilari kargua Gipuzkoan betetzeko lekualdatzen diren pertsonen araubide hori aplikatu dezaten, araubidearen gainerako baldintzak betetzen badituzte. Era berean, aurreikusten da hura ez aplikatzea entitate enplegatzailea edo zuzendaritza eta gerentzia eginkizunak betetzen diren entitatea ondare sozietatetzat hartzen denean.

PFEZ – Kontentsazioa oinarri orokorrean

Errenten integrazioan eta kontentsazioan, kontentsazio muga %10etik %25era igotzen da zerga oinarri orokorraren ondare irabaziak eta galerak zergaldi bakoitzean elkarren artean bakarrik integratzeak ematen duen saldo negatiboa kontentsatzerakoan.

los derivados de la elaboración de obras literarias, artísticas o científicas, cuando se ceda el derecho a su explotación, y siempre que no tengan la consideración de rendimientos de actividades económicas.

IRPF – Régimen especial personas desplazadas

Se incorpora la posibilidad de su aplicación a las personas que se trasladen a Gipuzkoa para desempeñar el cargo de administrador o consejero, siempre que cumplan el resto de requisitos del régimen. Asimismo, se excluye su aplicación cuando la entidad empleadora o la entidad en la que se desempeña las funciones de dirección y gerencia tenga la consideración de sociedad patrimonial

IRPF - Compensación en la base general

En la integración y compensación de rentas, la compensación del saldo negativo resultante de integrar, exclusivamente entre sí, en cada periodo impositivo, las ganancias y pérdidas patrimoniales de la base imponible general, el límite de compensación



Sozietateen gaineko zerga – Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeagatik kenkaria

Araudira behin betiko izaeraz gehitzen dira pandemiagatik eta Ukrainaren inbasioagatik azken urteotan aplikatu ziren aldi baterako neurri koiunturaletako batzuk. Horrela, mikroenpresek eta enpresa txikiek oro har egiten dituzten proiektuei aplikatuko zaie araubidea; eta gainera, sorrera berriko enpresa ertain berritzaileek garatutako proiektuei ere aplikatuko zaie. Enpresa onuradunek 2 milioi euroko finantzaketa jaso ahal izango dute gehienez proiektu bakoitzeko. Era berean, izaera txikiko zenbait baldintza ere malgutzen dira, hala nola Zerga Administrazioari komunikazioa aurkezteko moduari eta epeei dagozkienak, kenkaria aplikatzeko bete beharrekoak.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

se incrementa del 10% al 25%.

Impuesto sobre sociedades – Deducción por participación en proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica

Se incorporan a la normativa con carácter permanente algunas de las medidas que habían sido de aplicación a lo largo de los últimos años, como medidas coyunturales derivadas de la pandemia y de la invasión de Ucrania. Así, será de aplicación a proyectos realizados por microempresas y pequeñas empresas con carácter general; y además, también será aplicable a proyectos desarrollados por medianas empresas innovadoras de nueva creación. Las empresas beneficiarias podrán recibir una financiación máxima de 2 millones de euros por proyecto. Asimismo, se flexibilizan algunos requisitos de carácter menor, como los plazos y la forma de presentar la comunicación a la Administración tributaria, para poder aplicar la deducción.

Impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados



Alde batetik, salbuespen gaitan, Tren Azpiegituren Administratzaile Orokorrei eta Renfe-Operadoreari Estatuarentzat eta administrazio publikoentzat aurreikusita dagoen araubidea aplikatuko zaie. Bestalde, SME Nekazaritzako Kauzioaren Estatu Sozietate Anonimoak elkarren bermerako sozietateek dituzten zerga onurak aplikatu ahal izango ditu.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga

%50etik %99ra igotzen da «Bizigune» Etxe bizitza Hutsen Programaren esparruan Eusko Jaurlaritzaren programen harian erabiltzeko lagatzen diren ondasun higieziari zerga aplikatzen zaien hobaria. Gainera, hobari horren barruan sartzen dira Eusko Jaurlaritzaren «ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza programari» lagatako higiezinak

Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga

Eguneratu egiten da zergaren zerga oinarria

Por un lado, se extiende a los Administradores Generales de Infraestructuras Ferroviarias y a Renfe-Operadora, el régimen de exenciones previsto para el Estado y las Administraciones Públicas. Por otro lado, se extiende a la Sociedad Anónima Estatal de Caución Agraria SME, los beneficios fiscales de que gozan las sociedades de garantía recíproca.

Impuesto sobre bienes inmuebles

Se incrementa del 50% al 99% la bonificación aplicable a los bienes inmuebles cuyo uso sea objeto de cesión en programas del Gobierno Vasco en el marco del «Programa de Vivienda Vacía «Bizigune». Además, se incluyen en dicha bonificación los inmuebles cedidos al «Programa de Intermediación en el mercado de Alquiler de Vivienda libre ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa)» del Gobierno Vasco.

Impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana

Se actualiza la tabla que recoge los importes



zehazteko garaian aplikatu beharreko gehieneko koefizienteen taula.

Sortutako ondorioak

Proposatutako aldaketa gehienak izaera teknikokoak izan ziren, irizpideak argitzekoak, akatsak zuzentzekoak eta zerga-arauen igorpenak eguneratzekoak. Zerga aitortzen ez dago horiei buruzko informazio banakaturik, sistematizaturik eta ustiagarririk. Beraz, ezinezkoa da beraien eragina aztertzea.

Jarraian, datuak eskuragarri dauden neurriak aztertzen dira.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga

Txosten hau egin den datan, 13 udalerrik erabili dute hobaria %50etik gora igotzeko aukera. Horietatik 10 udalerritan %99ko gehieneko hobaria aplikatzen da, 2tan %75eko hobaria aplikatzen da eta udalerririk batean hobaria %60koa da.

de los coeficientes máximos a aplicar para la determinación de la base imponible del impuesto.

Efectos producidos

La mayoría de las modificaciones aprobadas fueron de carácter técnico, de aclaración de criterios, de corrección de errores y de actualización de remisiones normativas tributarias. En las declaraciones tributarias no se dispone de información desglosada, sistematizada y explotable de las mismas. Por tanto, no es posible analizar el efecto de las mismas.

A continuación se analizan las medidas de las que si se dispone de datos.

Impuesto sobre bienes inmuebles

A la fecha de elaboración de este informe 13 municipios ha utilizado la posibilidad de elevar la bonificación por encima del 50%. De ellos, en 10 municipios se aplica la bonificación máxima del 99%, en 2 se aplica una bonificación del 75% y en un municipio la bonificación es del 60%.



Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura

Oro har, eta azterketarako beharrezko datuak dituzten aldaketei dagokienez, aurreikusitako helburuak bete dira.

Izaera teknikoagoa duten gainerako neurri dagokienez, horien guztien helburua zen zerga-antolamenduaren ulermena eta argitasuna hobetzea, baita antolamendu hori behar bezala aplikatzea ere, segurtasun juridikoaren printzipioa betetze aldera.

Araugintza garatzeko beharrak

Aztertutako foru arauak hainbat gai utzi zituen erregelamenduz garatzeko. Horretarako, onartu zen 55/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzekoa. (GAO 2024/12/05).

Egokitzapen orokortuago bat eskatu zuen gaietako bat izatezko bikoteen erregulazioa izan zen, lau erregelamendutan jasota zegoen

Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados

En general, y respecto a las modificaciones de las cuales se disponen de los datos necesarios para su análisis, se ha cumplido con los objetivos previstos.

En relación al resto de medidas de carácter más técnico, todas ellas perseguían mejorar el entendimiento y la claridad del ordenamiento tributario, a la vez que una correcta aplicación del mismo en aras al principio de seguridad jurídica.

Necesidades de desarrollo normativo

La norma foral analizada remite diversas cuestiones a su desarrollo reglamentario. Para ello, se aprobó el Decreto Foral 55/2024, de 3 de diciembre, por el que se desarrollan reglamentariamente diversas modificaciones de la Norma Foral 1/2024, de 10 de mayo, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2024, y otras normas tributarias. (BOG 05/12/2024).

Una de las materias que exigió una adecuación reglamentaria más generalizada era la adaptación de la regulación relativa a



erregulazioa egokitu beharra bait zegoen. Zehazki, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren erregelamenduetan egin behar da egokitzapen hori.

Garatu beharreko beste gai bat ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak emateagatik lortutako etekinei eta ustiapen eskubideak lagata dituzten literatura, arte edo zientzia lanak egitetik eratorritakoei aplikatzen zaien atxikipenaren erregulazioa izan zen, betiere baldin eta, kasu bietan, jarduera ekonomikoen etekinak ez baziren. Dekretu honen bidez %15eko atxikipen tasa bat ezarri zen etekin mota horientzat.

Erregelamendu mailan egokitu behar izan zen azken gaiak Zerga betebeharraren formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduari eragin zion. Garatu egin zen banakako pentsioen produktu paneuropar jakin batzuen sustatzaileen informazio betebeharra.

las parejas de hecho contenida en diversos reglamentos tributarios, concretamente en el del impuesto sobre la renta de las personas físicas, el del impuesto sobre sociedades, el del impuesto sobre la renta de no residentes, y el del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados.

Otro aspecto a desarrollar era la regulación relativa a la retención aplicable a los rendimientos del trabajo derivados de impartir cursos, conferencias, coloquios, seminarios y similares, así como a los derivados de la elaboración de obras literarias, artísticas o científicas, cuando se ceda el derecho a su explotación, y siempre que no tengan la consideración de rendimientos de actividades económicas. Mediante este decreto se estableció un tipo de retención del 15% sobre dichos rendimientos.

Un último aspecto que requirió una adecuación reglamentaria afectó al Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales. Se desarrolló la obligación de información de los promotores de ciertos productos paneuropeos de pensiones individuales.



Arauaren aplikazioagatik judizializatutako kasuak

Orain arte ez da judizializaziorik egin bere aplikazioan.

Laburbilduz

Aztertutako foru araua eraginkortasunez bete da, ez da inolako arazorik izan hura aplikatzean, ez du ezbehar berezirik izan, eta orain arte ez da judizializaziorik egin haren aplikazioan.

Casos de judicialización por aplicación de la norma

Hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.

En resumen

La norma foral analizada se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.